



## FUNTSEZKO SOZIETATEAK ETA ELKARTZEA

Gure enpresan, innoberatzaileak garen horretan, garrantzi handia dauka beste erakundeekin elkartzea. Gure proiektuak funtziona dezan, ezinbesteko dugu beste enpresekin harremanetan jartzea.

Alde batetik, gure negozio ereduak optimizatzeko, beste enpresekin elkartzea gure proiektua aurrera eramateko funtsezkoa da, izan ere, hori delako gure proiektuaren funtsa. Beste aldetik, baliabideak eskuratzeko ere garrantzitsua da. Aukera berri asko eskeinitzeko dizkigute beste enpresek eta hainbat ate zabalduko dizkigute, beti ere enpresa aurrera ateratzeko asmoz. Beste enpresak guk hasiera batean lortu ezin ditugun baliabideak eskuratzen lagunduko dizkigute. Beharrezkoa baita enpresa handiago edo indartsuago baten bultzada gure proiektua handitzen eta ezagutzen joateko, berakin elkartzeak eramango du gure enpresa aurrera.

Halaber, ez dugu gurekin lehiakideak diren enpresekin kontaktuan jardungo, esate baterako, Info Jobs-ekin. Izan ere, ez da onuragarria gure proiektuarentzat, gure ideia edo helburu berdina duten erakundeekin harremanetan jartzeak berdinagatik lehiatzen ari baikara. Gure errendimendurako kaltegarria bihur daitezkeela iruditzen zaigu, gure enpresarekiko lehiakideak diren haiekin harremanetan lan egitea.

Mota guztietako enpresekin elkartu gara gazteei lana eskaintzeko. Supermerkatuak, taberna eta jatetxeak, sagardotegiak, aisialdi enpresak, lana eskaini nahi duten autonomoak (haur zaintzaileak behar dituzten gurasoak)...

Hori aurrera eramateko eta gazteei lana ahalbidetzeko, gure asmoa, Toki alai, Eroski, Carrefour, Alcampo, Ordo-Zelai, Tartalo, Ilcapo, Marisol, Sorgin Taberna, Belutene, Amazkar, Olaizola Jatetxea eta Makubi Tabernarekin harremanetan jartzea da. Gure proiektuan parte hartuko duten gazteek lana aurkitzeko enpresarik egokienak edo eskuragarrienak direlako. Modu horretan, kolaboratu nahi dugun enpresa hauek gure eskera onartzen badute, aurrera pauso handia izango litzake gure enpresarentzako.



Enpresa mota hauetan ez da lanaren espezializazio handia eskatzen, edozein gaztek egin dezake lan horrelako enpresen barruan, ez da prestakuntza berezirik behar. Gure enpresak aukera emango dio banakako pertsoneri lana eskaintzeko gazteei, haur zaintzaile bat behar duten gurasoak adibidez, eskaini dezakete lana enpresak izan gabe.

Ondorioz, beharrezkoa ikusten dugu beste sozietateekin elkartzea gure enpresa proiektua gauzatzeko. Gure proiektua aurrera eraman ahal izateko eta horrela elkarrenganako onurak edukiz.